


Euskal AEko eraikuntza-kostuak %0,1 jaitsi dira 2023ko abenduan

Urte arteko zifretan, 2023ko abendua eta 2022koa alderatuta, prezioen igoera %3,8koa izan da.

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea %0,1 jaitsi da 2023ko abenduan, aurreko hilaren aldean. 2022ko hil beraren aldean, kostuak %3,8 igo dira.

Obra Zibileko kostuak %0,3 jaitsi dira, eta Eraikuntzakoak konstante mantendu dira. 2022ko abenduaren aldean, prezioak %3,8 igo dira Eraikuntzan eta Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

2023ko azaroaren aldean, **lehengaien** kostuak %0,1 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuaren igoera % 4,3koa izan da, eta eskulanarena % 2,1ekoa.

Lehengaien kostua %0,1 jaitsi da hil artean Eraikuntzaren sektorean eta %0,4 Obra Zibilean. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuak %4,3 igo dira, eta Obra Zibilekoak %4,2.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	126,4	-0,1	3,8
Eraikinak	125,8	0,0	3,8
Obra zibila	129,0	-0,3	3,8
Lehengaiak	128,7	-0,1	4,3
Eraikinak	127,9	-0,1	4,3
Obra zibila	131,9	-0,4	4,2
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Urtarrilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

2023ko abenduan izan dute gorakadarik handiena Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioek, 2022ko abenduaren aldean: *Ez-metalezko mineralak* (%11,3), *Kautxu eta plastikoa* (%10,6) eta *Altzarigintza* (%6,3). Sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusiak, aldiz, honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa eta Gasa* (%41,9), *Petrolio eta fintzea* (%8,8) eta *Industria kimikoa* (%5,7).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Abendua 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	11,3
Zuraren eta kortxoaren industria	-3,0
Petrolio eta fintzea	-8,8
Industria kimikoa	-5,7
Kautxua eta plastikoa	10,6
Produktu mineral ez-metalezkoak	5,3
Metalgintza	-0,3
Metalezko artikulak	0,7
Material elektronikoa	4,8
Material elektrikoa	3,0
Makineriaren fabrikazioa	5,4
Altzarigintza	6,3
Energia elektrikoa eta gasa	-41,9

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Urtarrilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62